Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko urtarrilaren 21a, asteazkena — 12 — Miércoles, a 21 de enero de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Azpeitiko «UE.1/31 Trukutxo» Exekuzio Unitateko Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onarpena.*

2025eko abuztuaren 7ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Azpeitiko «UE.1/31 Trukutxo» Exekuzio Unitateko Birpartzelazio Proiektuari, Hierros Servando, SLren ekimenez formulatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikuluan ezarritako helburuak gauzatzeko (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 128. zk., 2006ko uztailaren 6koa).

Birpartzelazio Proiektua Santiago Peñalba eta Iñigo Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dute.

Birpartzelazio Proiektuari hasierako onarpena eman ondoren, espedientea jendaurrean jarri zen, 2025eko abuztuaren 13ko 153 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaleko iragarki-taulan eta El Diario Vasco egunkarian (2025eko abuztuaren 12koa) argitaratutako iragarkien bidez.

Era berean, jakinarazpena egin zitzaien eragindako finken titularrei, Uraren Euskal Agentziari (URA), Gipuzkoako Foru Aldundiari - Bide Azpiegiturak eta Lurralde Estrategia, eta Euskal Trenbide Sareari. Halaber, Jarduketa Unitateko Birpartzelazio Proiektuak eragindako eskubide errealak dituzten finken titularrei jakinarazpena egin zitzaien, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2025eko abuztuaren 15eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* eta 2025eko abuztuaren 14ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurreko informazio- eta entzunaldi-epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du Urola ibaiaren gaineko zubia eta pasabidea eginda daudela, eta obra horiek 2009ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez baimendu zirela, Corrugados Azpeitia SLUren alde, eta, ondorioz, baimenaren titulartasun-aldaketa izapidetu beharko dela, eskubide eta betebehar guztien subrogazioarekin, bereziki okupazio-kanonari dagokionez, bai zubiarentzat bai gorago dagoen pasabidearentzat.

Espedientean jasota daude udal arkitektoaren eta Idazkaritzaren aldeko txostenak.

Azaldutakoa ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko urriaren 7an egindako bilkuran, Azpeitiko «UE.1/31 Trukutxo» Exekuzio Unitateko Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzea erabaki zuen.

Era berean, birpartzelazioaren ondorioz lortutako ondasun eta baliabideak Udalaren Lurzoru Ondarean sartzea erabaki da, Planean aurreikusitako erabileretara atxikita, eta lortutako lurzatiak Udal Inbentarioan alta ematea.

Adierazten da, halaber, Hierros Servando, SLk bere gain hartuko duela instalazioetarako pertsonen eta ibilgailuen sarrera-irteeretarako erabilera publikoko eremuaren mantentze-betebeharra (1. emaitzazko partzela), erabilera hori partzela horretan

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución «UE.1/31.Trukutxo» de Azpeitia.*

Por Resolución de Alcaldía de fecha 7 de agosto de 2025, se aprobó inicialmente el Proyecto de Reparcelación correspondiente a la Unidad de Ejecución «UE.1/31 Trukutxo», formulado a iniciativa de Hierros Servando, S.L., para la materialización de los objetivos establecidos en el artículo 42 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 128, de 6 de julio de 2006).

El Proyecto de Reparcelación ha sido redactado por los arquitectos Santiago Peñalba e Iñigo Peñalba y el abogado Mikel Iriondo.

Aprobado inicialmente el Proyecto de Reparcelación, el expediente fue sometido a información pública mediante anuncios publicados en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 153, de 13 de agosto de 2025, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en el diario El Diario Vasco, de fecha 12 de agosto de 2025.

Asimismo, se realizó notificación a los titulares de las fincas afectadas, a la Agencia Vasca del Agua (URA), a la Diputación Foral de Gipuzkoa - Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial, y a Euskal Trenbide Sarea. Igualmente, se practicó notificación a los titulares de las fincas con derechos reales afectados por el Proyecto de Reparcelación, conforme a lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, mediante anuncio publicado en el *Boletín Oficial del Estado* de 15 de agosto de 2025 y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 14 de agosto de 2025.

Durante el plazo de información pública y audiencia a los interesados no se formuló alegación alguna.

La Agencia Vasca del Agua (URA) ha informado que el puente y la pasarela sobre el río Urola ya se encuentran ejecutados, habiendo sido autorizados mediante Resolución de 13 de febrero de 2009, a favor de Corrugados Azpeitia S.L.U., debiendo tramitarse el correspondiente cambio de titularidad de la autorización, con subrogación de derechos y obligaciones, especialmente en lo relativo al canon de ocupación, tanto para el puente como para la pasarela situada aguas arriba.

Constan en el expediente los informes favorables del arquitecto municipal y de la Secretaría.

A la vista de lo expuesto, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 7 de octubre de 2025, acordó aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación correspondiente a la Unidad de Ejecución «UE.1/31 Trukutxo», de Azpeitia.

Asimismo, se acuerda incorporar al Patrimonio Municipal del Suelo los bienes y recursos obtenidos por la reparcelación, afectándolos a los usos previstos en el Plan, y dar de alta los terrenos resultantes en el Inventario Municipal.

Se hace constar expresamente que Hierros Servando, S.L. asumirá la obligación de mantenimiento del espacio de uso público destinado a los accesos a las instalaciones (parcela resultante n.º 1), por tratarse de un uso vinculado exclusivamente a

ZIRRIBORROA - BORRADOR

EK\CV GAO-I-2025-09075

garatzen den jarduerari soilik lotuta dagoelako, eta Udalak bere gain gordetzen duela nahitaezko lagapenaren xede den lurzatian lehendik dagoen eraikina kontserbatzeko ahalmena, alderdi horiek dagokion Urbanizazio Proiektuan zehaztuko direlarik.

Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onarpenaren erabakia administrazio-bidean irmoa denean, Jabetza Erregistroan inskribatuko da.

Erabaki horren aurka, administrazio-bidea amaitzen baitu, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azpeitia, 2025eko abenduaren 30a.—Idazkari nagusia.
(9075)

la actividad desarrollada en dicha parcela, reservándose el Ayuntamiento la facultad de conservar la edificación existente en el suelo objeto de la cesión obligatoria, extremos que se desarrollarán en el correspondiente Proyecto de Urbanización.

Una vez firme en vía administrativa el acuerdo de aprobación definitiva, se procederá a su inscripción en el Registro de la Propiedad.

Contra el citado acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, o bien recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Azpeitia, a 30 de diciembre de 2025.—La secretaria general.
(9075)

EK\CV GAO-I-2025-09075



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810*